

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure aplikazioa Euskal Herriko gazteei begirako plataforma bat da. Bertan lan eskaintzak, ikasleen artean hitz egitea ahalbidetuko dieten foroa, eskaintza kulturalak, unibertsitate zein goimailako ziklo edo graduen inguruko informazioa, pisu eta erresidentzia eskaintzak eta beken inguruko informazioa bilduko dugu. Gure proiektua finantzatu ahal izateko, diru laguntzak eta kredituak jasotzea ezinbestekoa izango zaigu. Hortaz, laburbilduz, Euskal Herriko gazteen elkargune nagusia izango den aplikazioa sortu nahi dugu, ikasle zein gazte garaian sortu daitezkeen arazoak arintzeko asmotan.